

Tabarca Itsas Erreserba.

Penintsularen hego-ekialdean, mediterraneo itsasoaren ur gardenek uhartedi txiki bat inguratzen dute, Tabarca uharteko Itsas Erreserbaren bizkar hezurra.

Santa Pola lurmuturretik 3 itsas-milia eskasetara kokatutako Itsas Erreserbako eremu zabalean *Cymodocea* eta *Posidonia* landareak dira nagusi. Fanerogamo hauek osatutako zelaiak Tabarca osoan zehar aurkitzen dira, 30 metroko sakoneraraino.

Posidonia landarearen garapena ezohikoa da hemen, eta gure itsasoetako ekosistema helduenetariko baten oinarria dira.

Posidonia lahardien artean, kolore eta forma ikusgarriko animaliak ikus daitezke, txibia eta itsas zaldia, esaterako, eta batzuetan, baita bere ezkutalekutik irtendako itsas-sugeren bat ere.

Batez ere *Posidonia oceanica* zelaiaren osasun eta kontserbatze egoera onari esker, Tabarca Itsas Erreserbaren aniztasuna handia da. Landare hau ekosistema aberats honen orekaren oinarria da; oxigenoa ekoizten eta hondoak egonkortzen ditu eta itsas espezie ugari babestokia eskaini. Gainera, arrantzarako interesgarriak diren espezie askok hemen aurkitzen dute ugaltzeko toki egokia.

Tabarca-ko uretako bioaniztasun handia dela medio, artisau-arrantza ontzidi garrantzitsua garatu zen hemen. 1986. urtean Itsas Erreserba izendatzearekin batera, arrantza baimendua den eremua mugatu egin zen. Tresmailen, azaleko tretzen eta nasen bidez arrantzatzen da, eta bertako arrantzale urriek *moruna* deitzen duten teknika ere maiz erabiltzen dute.

Arrantza teknika honen arabera, *rabera* deitutako oihal bakarreko sare gurutzatua kostara lotzen da. *Rabera* hesiak *caracol* deitutako labirintoan zehar sarearen ondoraino bidaltzen du arraina. Apiriletik irailera *moruna grossa*-ren sasoia da, eta espezie pelagiko eta demertsalak, seriola, esaterako, arrantza kopuruaren %85a dira. Errespetuzko teknika berezi honen bidez espezie ugari harrapatzen dira: berrugeta, barrakuda, txelba, melba, baleztarraina... Urritik abendura, *xirretera* edo sare-begi txikiko *moruna* erabiltzen dute, kostaldeko espezie txikiagoak arrantatzeko.

Moruna handiaren nahiz txikiaren kasuan, sarearen ondoa gainazalera jasotzen dute, espezie interesgarrienak bertatik hautatu eta biltzeko.

Garai batean, bertako arrantzale eta ontzigile trebeek arrantatzeko eta zama eta bidaiariak Penintsulara eramateko *llaúd* izeneko bela-ontziak egiten zituzten. Gaur egun, horien urpeko hondarrak besterik ez dira geratzen Tabarca-ko inguruetan.

Itsasketa eta arrantza izan ziren Tabarca-ko jendearen ia bizibide bakarra. Gaur, aldiz, turismoari loturiko jarduerak nagusi dira bertan.

Interes ekologiko nahiz ekonomikoko habitat eta espezieak babestea da Itsas Erreserben helburu nagusia.

Tabarca-ko Itsas Erreserbak funtsezko hiru xede betetzen ditu: Habitat eta espezien kontserbatzea, ikerketa zientifikoa eta baliabide ekonomikoen garapen iraunkorra, uhartearen biztanleria nahiz ingurumena aintzat hartuz.